

1936ko gerrateari buruz  
mahai inguruko sarrera  
Iosu Chueca. Koordinatzailea

---

"Hobe berandu sekulan baino" dio erranera zahar batek eta Eusko Ikaskuntzak inor baino hobekiago erran ditzake hitz horiek gerrateak aztertzeko tenorean.

Izan ere gure mahaian jorratuko dugun gaiaren abagadunean, 1936.ko udazkenean, hain zuzen ere, Eusko Ikaskuntzak prest zuen biltzar bat, Euskal Herriko historia sakonki jorrazteko eta jorratu behar ziren gaien artean, gaur hemen ikusten ari garenak zeuden.

Jakina denez, 1918.an Eusko Ikaskuntza sortu zenetik, bere ekitaldi garrantzitsuenak, gai bat arras sakonki lantzen zuten batzarrak ziren. Oinatiko batzarrari, 1920.ean Iruñean -"Hezkuntza eta giza arazoak", 1922.ean Gernikan, "Hizkuntza eta Hezkuntza", 1930.ean, Bergaran -"Euskal Arte Herrikoa" gaiekin burutu zituztenak jarraipen bikaina eman zioten.

II. Errepublika bere udazkenean sartuta zelarik, 1935.ko irailaren 22.ean Eusko Ikaskuntzaren Batzorde iraunkorrak Tuteran izandako bileran erabaki zuen Lizarran 1936.ko irailean egin behar zen VII. biltzarraren gai zerrenda.

Hasiera batetan batzuen asmoak Erdi arora mugatzea ba zen ere, bilkura horretan eztabaidatu eta gero, ikuspegi zabalago batekin Euskal Historiari buruz, zenbait gai onetsi zituzten aipatu kongresorako. Beste batzuen artean honakoak zeuden:

"Nafarroa eta Euskal Herriko gainontzeko erakunde politikoen jatorria, Tokian tokiko foruak, Franko, mairu eta judutarrak Euskal Herrian, XIX.mendeko guda zibilen bibliografia" etab.

Aipatu dudan azken gai hau gogoan zuen aspaldidanik Eusko Ikaskuntzak. Izan ere Primo de Riveraren Diktaduran, saiatu ziren Gerra horietaz, erakusketa bat egiten.

Erakusketa Diputazioek eta Eusko Ikaskuntzak nahiko aurreraturik zutelarik jaso zuten agindu bat, 1928.ko urtarrilaren 28.ean, proiektu hau indarrez bertan beheratuz. Honako hitzekin ebaki zituzten Eusko Ikaskuntzaren asmoen kariatz bildutako historiagileen asmoak:

*"Informado el jefe del Gobierno del propósito de celebrar una Exposición de trofeos, bibliografías y recuerdos de las guerras civiles en algunas provincias del Norte, se ha dispuesto se oficie a los gobernadores civiles de ellas para que denieguen las autorizaciones precisas para tales actos, que carecerían de toda eficacia y oportunidad, conduciendo sólo al recrudescimiento de pasiones que no deben ser exaltadas".*

1936.ko Lizarrako Biltzarra hondoratzeko ez zen horrelako aginduren beharrik. Eusko Ikaskuntzaren VII Biltzarra egitear zegoelarik Euskal Herria osoa gerra zibil baten erakusgarri haundi bezain tristea bihurtuta baitzegoen.

Dena den, baikortasun haundiz, "Euzkadi" egunkari jeltzalean uztailaren 24.ko alean, Eusko Ikaskuntzaren udal kurtsorearen egitaraua azaldu zen.

Hitzlarien artean, armetan altxatuen aurkako aldea aukeratu zuten aunitz ziren. Besteak beste, hor genituen: Jose Miguel Barandiaran, Pere Bosch Gimpera, Claudio Sanchez Albornoz, Jesus Maria Leizaola... etab.

Bestalde, Kongreso gunea izan behar zuen Lizarra egundoko errepresioa jasaten ari zen, biltzar hori egiteko jarrita zeuden alde aurretiko egunotan.

Ezaguna da oso, bertako komandante militar Ricardo Sanz Iturriak kaleratu zuen bandoa, beste basakerien artean, txistu, jantzi separatistak, eta "Agur" hitza debekatzen zituena, ale-

gia. Era berean, jakin badakigu irailaren San Miguel egunean, herri horretako alkatea zen Fortunato Agirre jeltkideak pairatu zuen patu zorigaiztoa.

Eusko Ikaskuntzak ere oso aurka izan zituen lehendabiziko unetik altxatu faxistak. Elkartea hau gogor erasotu zuten altxamendu faxista sustengatzen zutenak. Gerrateak elkartearan amaiera ekartzeaz gain beraren kontrako gorrotoak azaleratu zituen faxistak nagusitzen ziren heinean. Horren lekuko Gipuzkoako erasoaldia lehen egunetan, "Diario de Navarra"ko zuzendari ordea zen Eladio Esparzak, komunikabide horren lehen orrialdean, Eusko Ikaskuntza eta Lizarrako biltzarren aurka idatzi zuena :

*"No se ha levantado más que la voz de la metralla y de la furia contra la sangre de nuestros muchachos! Y ahí tenemos una Sociedad de Estudios Vascos, vocera de las ansias espirituales del país, exponente de la mayor categoría de la cultura del país, extendida por las tierras todas del país vasco y auxiliada y favorecida con la aportación nuestra. ¿Dónde están los varones de la Sociedad de Estudios Vascos? ¿O nada cuentan para ella los navarros que con el sacrificio de sus vidas hacen frente a la ola marxista que iba a devorarnos? Es preciso que en Navarra se tenga en cuenta esta omisión incalificable y se le nieguen el pan y el agua, por parte de la diputación, por parte de los ayuntamientos, por parte de cuantos estamos cotizando en esa institución.../... El Congreso de este año se iba a celebrar en Estella y por septiembre. Por septiembre celebraremos en Estella lo que nos de la gana: lo que no se celebrará ni en Estella ni en palmo alguno de territorio navarro será ese congreso de nacionalistas que no han querido a Navarra más que para nutrirse de sus cuotas, como en esta ocasión, con su silencio incalificable, se ha demostrado hasta la evidencia ignominiosa. Que Navarra no de un solo centimo a esa sociedad protectora del Estatuto y encubridora del separatismo, los dos más crueles enemigos de nuestros héroes."*

Hirurogei urte igaro ondoren, hirugarren aidanez, aukera dugu, Eusko Ikaskuntzako aurrekideek jorratu behar zituzten gerra kontuetaz mintzatzeko. Baina zoritxarrez orduko egitarauri gai gehiago gehitzeko beharturik izan gara, Lizarrako biltzarra bertan behera utzi zuen gerratea eta gaur egungo indarkeriaren arazoa hain zuzen ere. Bai 1928.ean, baita 1936.ko bilzarrean zuten izpiritu zabal eta zientifikoarekin ere gerrate eta indarkeriaren binomioaren azterketari ekin nahi diogu orain hitz egingo duten adituekin.